


# Furoshiki, arte jasangarria



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**J**aponia, VIII. mendea. Nara Aro batean *furoshiki* terminoa erabiltzen hasi ziren, baina Edo Aroa arte (XVII-XIX. mendeak) ez zen hedatu. Furoshiki objektuak ohialetan biltzeko artea da, baina bere etimologiak garbi uzten du bere jatorria: *furo* hitzak bainua esan nahi du eta *shiki-k*, aldiz, zeremonia. Hau da, hasieran japoniarrek *sendo* izeneko bainuetan arropak biltzeko erabiltzen zituzten oihal horiek. Baina gero erabilera hedatu zen, oihalen tamainarekin batera: bidaiariak ekipajea eramateko erabiltzen zituzten, opariak biltzeko, saltzaile ibiltariak salgaiak garraiatzeko... Zapien diseinuak ere garrantzia hartu zuen. Berez, bainuetan, arropa norena zen identifikatzeko balio zuten oihalen irudi eta koloreek, baina gero eta esanahi zehatzagoa hartzen joan ziren, erabiltzaileen familia, jatorri geografikoa edota klase soziala markatzeraino.

Baina Bigarren Mundu Gerran Japonia galtzaile izan zen, eta furoshiki artea ere bai. Gerraren ondoren, gauzak biltzeko plastikoaren, kartoiaren eta paperaren erabilera hedatu zen nonahi, eta japoniarrek ere zapiak baztertu zituzten.

Mende erdi geroago, 2000. urtean, Japoniako Ingurumen Ministerioak ohitura zaharra berreskuratzea erabaki zuen, furoshiki artearen aldeko kanpaina bizia abiatuta; egun, furoshi-



UTAGAWA KUNISADA

ki teknikak ikasteko edukiak topatu daitezke oraindik Ministerioaren webgunean. Eta Japonian ohitura berreskuratzea ez ezik, atzerrian ere zabaltzea lortu dute. Beste bilgarri asko ez bezala, oihalak berrerabilgarriak dira. Iraganen zetazko furoshikiak hobesten baziren ere, gaur egun, material merke eta jasangarriagoak erabili ohi dira,

nagusiki kotoi organikoa. Eta aurrez beste erabilera batzuk izan dituzten oihal zatiak ere berrerabil daitezke bilgarri gisa.

Antzinako Japonian oparia furoshikiz biltzeak opariak berak bezainbesteko garrantzia zeukan. Eta egun opari jasangarriak egiteak balio bikoitza daukala gogorarazten digu arte zaharrak. ●



## Australopithecus belarjaleak

Duela 3,5 milioi urteko australopitekoak nagusiki belarjaleak zirela ondorioztatu du *Science* aldizkarian argitaratu berri den ikerlan batek. Tina Lüdecke geokimikaria buru duen taldeak zazpi indibiduoren hortzen esmaltea aztertu du ondorio horretara iristeko. Aurrez jakina zen hominidoak gutxienez duela 2,6 milioi urte hasi

zirela ehizan eta horrek dieta aldatzea eragin zuela. Orain, ikerlanari esker badakigu milioi bat urte lehenago ez zutela ehizatzen. Baina ehizak emango zien ekarpen proteikorik ez bazuten ere, ikerlariak ez dute bazterten proteinak beste iturri batzuetatik lortzen zituztenik, esaterako, arrautzetatik edo termitetatik. ●